

oinak buruan

Eskolartekoa

SAIO DIDAKTIKOAK

(bertso hautatuak)

&

BERTSOPAPERAK

-2014-

Antolatzailea: **Euskal Herriko Ikastolen Elkarte**



Laguntzailea: **Bertsozale Elkarte**



Babesleak:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Bildumaren egilea: **Gorka Azkarate**

Mila esker dokumentu hau osatzeko euren hondar aletxoak jarri duten lagun guztiei: Ainhoa Mujika, Iraitz Sarasola, Oihana Iguaran, Oier Iurramendi, Karmele Mitxelena, Iñaki Gurrutxaga, Eneko Beretxinaga, Onintza Garcia, Aitor Urbieta eta Juan Inazio Sudupe

AURKIBIDEA

1-Hitzaurrea

2-Saio didaktikoetako bertso hautatuak

Zarautz (2014-3-7)

Lasarte-Oria (2014-3-14)

Zumarraga-Urretxu (2014-3-21)

Lazkao (2014-3-28)

Elgoibar (2014-4-4)

Azkoitia (2014-4-10)

3-Bertsopaper sarituen bilduma

1-HITZAURREA

Aski ezaguna da denontzat 2014a urte berezia izan dugula **Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren** inguruan. Batetik, Euskal Herriko Ikastolak Elkarte eta Bertsozale Elkartearen arteko lankidetzaren abian jarri dugulako; bestetik, eskolartekoaren oinarrietan aldaketa aipagarriak abiatu ditugulako: besteak beste, gaztetxoaren mailako neska-mutilentzat (14 urte artekoak) lehiarik gabeko jardueraren lehenetsi izana, eta helduen mailako (15-18 urte bitartekoak) bat-bateko kanporaketak mahainguruko saioetan osatzea.

Denborak esango digu erabaki zuzena ala okerra izan den, baita zertan asmatu eta zertan huts egin dugun ere. Nolanahi ere, ziklo berri bat zabaldu da 1981ean Donostiako Carmelo Balda pilotalekuan hasiera eman zitzaion ekimen honentzat.

Eskolarteko txapelketaren beste ezaugarri nagusi batek ekarri gaitu sarrerako hitz hauek idatzi eta irakurtzera: bertsopaparetako eta bat-bateko emaitzak urtero argitaratzeko ohiturak, alegia. Arlo honetan ere aldaketa nabarituriko dugu aurrean, urteroko liburuxka eta DVDa ordezkatzuz (lehen CDa) beste euskarri batean plazaratzeko baita 2014ko emaitzen bilduma, *pdf* delako euskarri digitalean hain zuzen.

Zalantzarik gabe, partehartzaile eta bertso eskola zein ikastetxeetako arduradunentzat opari gustagarria izango da bilduma hau, bertsopaper sarituak eta saio didaktikoen laburpenak, berriz ere, gure ahotan jartzeko moduan eskura baititzakegu.

Mikel Mendizabal

2014ko abendua

2-SAIO DIDAKTIKOETAKO BERTSO HAUTATUAK.



ZARAUZ

Bertsopaper ariketa, Zarauzko Oteitza Lizeoan:

Hernani, Zumaia, Getaria, Orio eta Zarauzko ikasleak



Saio didaktikoa, Zarauzko Modelo aretoan:

*Hernaniko taldea: Iker Ormazabal, Jonan Etxeberria, Urtzi Nazabal, Aimar Garaiar eta Etxahun Arrue.

*Zarauzko bi talde: Izar Aldalur, Beñat Chico, Iraia Aldai, Ganix Elorrieta eta Ekai Amuskibar batean eta Uxue Alkorta, Maddi Landa, Aroa Arana, Jone Lizarralde eta Joane Aldalur, bestean.

*Iñigo Mantzizidor "Mantxi" eta Andoni Egaña

Aurkezlea: Peru Gabirondo



Hernaniko taldea, agurra kantatzen



Zarauztarrak, etxean eroso

Kaixo,
Maddi, Uxue, Jone,
Aroa ta Joane,
berriro Modelon,
oholtzaz kanpo ezin egon.
Nahiz gauzak aldatu,
gu gara berriz elkartu,
zuen aurrean ostiral arratsaldean.

Gaur hemen Aroa Arana,
euskaldun amerikana,
hain koketa, hain pertxenta,
hain polita ta hain dama...

Zu, Maddi Landa, dinbi-danba,
hitzak azkar-azkar esanda
hain perfekta, hain lotsati,
hain ederra ta hain oilanda!

*Modelo zahar, Modelo berri,
gu Etxe-Beltzen gaude,
nork nahi du etorri?
Modelo zahar, Modelo berri,
bertsoak egin dio euskarai xirri!*

Neska morena hau da Joane Aldalur,
bere irteerekin uzten gaitu zur eta lur.
nahiz ta beti irrifartsu, aingeruen pare,
taldeko bihurrina Jone Lizarralde!

Ni nolakoa naizen nahi dizuet konta
izenez Uxue naiz, deituraz Akorta,
jendeak berritsua naizela dio ta,
ezin ixilik egon, behin hona igota.

Lalalalalalalalala...

Kitto,

*hori zen gure agurra,
suerte eta egurra,
saia gaitezen,
garen bezala agertzen,
gure lekua badugu,
erakustea helburu,
bertso eskolan egiten dela nahiko lan.*

*Modelo zahar, Modelo berri...
Lehenago bertsolariak ziren oso zaharrak,
erdi mozkorrak eta itsusi xamarak.
Aldatu nahi genuke estereotipoa,
norbaiti arrautzetan eman ostikoa.*

Iaz gure lau neskek jo zuten Olinpo,
euren bidean segi nahi genuke tinko
mareak bizi datoz eta itsasgora,
gaur alerta gorria piztu beharko da

*Modelo zahar, Modelo berri.
gu Etxe-beltzen gaude,
nork nahi du etorri?
Modelo zahar, Modelo berri
aktore printzipaltzat
nahi gaituzte jarri.*

Aurkezle berria ere, guapoa eta gaztea,
Joxemari Iriondokin,
zer nolako kontrastea,
komeni al zaigu Peruri,
kasu egiten hastea?
beti ohi dugun bezala,
goazen bazterrak nahastea!

Lalalalalalalalala...

Saio didaktikorako,
prest da hainbat ariketa,
buruz dakit baina,
eskuan daukat txuleta,
Mantxi eta Egaña jauna
jar ezazue arreta,
zuekin erruki izpirik,
ez dugu izango eta.

**Doinua: Zarena
zareako**

Zarauzko taldea: Maddi Landa, Uxue Alkorta, Jone Lizarralde, Aroa Arana, Joane Aldalur



Zarauzko neskatilak, euren abilezia agerian jarritz



"Modelo zahar, Modelo berri..."

Andoni Egaña eta Iñigo Mantzizidor "Mantxi": HASERAKO AGURRA

Doinua: Denbora, leku, zeru ta lurrak

ⓄEGAÑA

Arratsaldeon nik'e lehenbizi
Modelo zahar-berria,
ordu erdian nahastu zaizkigu
sustoa eta irria,
baten errima, baten *jestua*
ta bestean eztarria,
txapelketarik ez dela aurten
digute iragarria,
badaezpa're nik-e badet bat
etxetikan ekarria.

ⓄMANTXI

Arratsaldeon lehendabizikoz
komeni da azaltzea,
entzunak-entzun, ez degu izan
inon denbora galtzea,
etorkizuna badagoela
garbi geratu da, zea,
oinak buruan garbi jartzen du
falta da irakurtzea,
hasi ezker gozada bat da
hankaz gora kantatzea.



Iñigo Mantzizidor "Mantxi" eta Andoni Egaña, kantuan

GAIA: gaurko azterketan, Andoni Egaña maisuak, Mantxi ikaslea ikusi du mahai azpitik papera atera nahian.

Doinua: Kantatzera nihoa

@EGAÑA

Gaurkoa tokatzen zan
azterketa eguna,
une batez pizarra
aurretikan juna,
Mantxi ikusi dizut
paper bat leguna
komuneko paperan
tankerik ez duna. (bis)

Maltzur atera zuk ta
nik jo dizut begiz,
gero txapelketa bat
omen dezu egiz...
Geografi-azterketa
geneukan hau, aldiz,
ta ez dira errimakide
Sofia ta Paris. (bis)

@MANTXI

Gero saioa daukat
mekasuen Kalkuta!
eta agurra noski
ez det prestatuta...
Hura idatziz nabil
zergatikan uka?
Horrexegatik nago
paperak galduta. (bis)

Beraz, geografia
daukagu Kalkutan,
ez det aprobatuko
zure kalkulutan,
Paris ere ahaztu
eiten zait batzutan,
behintzat ondo nekien
txuleta nun neukan! (bis)



Peru Gabirondo, Egaña eta Mantxiri gaia jartzen

Zeu tranposoa, ta zeu
jaun eta jabea.
ikasketan ez zara
batere trebea.
bizimodu oparoa
dukezu ordea.
inoiz ez zara izango
paperik gabea. (bis)

Paperak galdu ditut
gaurko arrastian,
ta ez nekin zer egin
idazten hastian,
zeu maixu txarra zera
zeure desastrian
erantzunak daukazu
txapelan azpian! (bis)

Azterketa zen baina
zuretzako festa,
bururik ez daukazu
hark sortu dit kezka...
Berdin dio mutila,
berdin dio neska
ikasle txarrantzat
maixu onik ez da. (bis)

Ahaztu egin zait Paris
ahaztu Kalkuta,
beste *kate* bat noski
mekasuen la fruta!
Nahiz hau eskola izan
ezingo det uka,
futboleant bezela
arbitroan kulpa. (bis).



Andoni Egaña



Iker Ormazabal eta Etxahun Arrue, beti bezala adarjotzaile



Aner Perez, azken agurreko bertsoa kantatzen



Peru Gabirondo, saioaren gidaria

LASARTE-ORIA

Bertsopaper ariketa, Lasarteko Manuel Lekuona kultur etxean:

Oiartzun, Hernani, Donostia, Urnieta, Pasai Donibane eta Lasarte-Oriako ikasleak



Saio didaktikoa, Lasarteko Manuel Lekuona kultur etxean:

*Beasaingo 2 talde (batean): Ekain Imaz, Beñat Imaz, Naroa Aranburu, Garazi Gibelalde, Xiker Larrea, Hodei Zabaleta, Xanet Mendizabal eta Asier Olano

*Oiartzungo 2 talde: Ander Barkin, Anje Delgado, Garoa Felipe eta Araitx Sagarna, batean, eta Beñat Leonet, Ekaitz Salaberria, Kimetz Toledo eta Ekain Lopez, bestean.

*Ane Labaka eta Beñat Gaztelumendi

Aurkezlea: Amaia Agirre

GURE ESKU DAGO TA

Arratsaldeon bertsozaleak
iritsi gera Lasartera
hiru kotxetan estu sartuta
Beasaindik etorri gera.
Hurrengoan bide batez
trena jarri hemen mesedez
beasaindarrok egin legez!

Guk ez dugu txapela janzteko
premia edo ametsik,
bertso gogoak elkartzen gaitu,
ondo pasa nahirik.

Puntu ta nerbioak
ez ditugu maite
irri egin dezagun
lehertu arte
ez dugu beste inor
mendean hartu nahi
bertsolaritza bihur dezagun jai! (Bis)

*Hartu dezagun hitza
gure esku dago-ta
milaka bertsolari
tabladura igota
jende zoriontsua
mikrofono aurrean
mikrofono aurrean*

Ekain, Naroa, Xanet, Nerea, Asier!

Hartu dezagun hitza...

Idolo desberdinak
ohi ditugu guk segi
Egaña, Amaia Agirre,
Silveira zein Alberdi,
Zubeldia, Estiballes,
Alaia, Sarriegi,
Agirreazaldegia...

Garazi, Odei, Xiker, Naiara, Beñat!

Hartu dezagun hitza...

Puntu ta nerbioak...

Doinua: Gure
esku dago

Beasaingo taldea: Ekain, Naroa, Asier, Nerea,

Garazi, Hodei, Xiker, Beñat, Xanet



Lasarteko oholtzara igo ziren bertsolariak



Manuel Lekuona kultur etxea, lepo



Urduritasuna nagusi, kanturako txandaren zain

Aurtengo hontan aldatu dute
txapelketako eskema,
horregatikan hartu dugu guk
barruan kristoren pena,
bat-batekoan bertsok bo(ta)tzia
zen guretzat hoberena
txapelketarik ez degu aurtan
hori da gure problema. (bis)

Lehengon bertsotan ari nintzela
ailegatu zen berria,
hasieran nik pentsatu nuen
sartu zitela ziria,
lehengo urtian bat-batean zen
izan ikaragarria,
aurtengo plana nire ustetan
da oso lotsagarria. (bis)

Bat-batekoan kantatzera gu
etorri ge(r)a Lasartera,
bertsok botatzen ditugula guk
Beñat ta Anen antzera,
hemen kantatu eta ondoren
iritsi nahi finalera,
faboritoak ginela eta
kendu digute aukera! (bis)

Bat-batekoan bertsok bo(ta)tzeko
guk eskubidea degu,
beste guztiei irabazteko
beldurra zuten seguru!
Gaur bertso oso onak botata
txapela zen gure helburu
ta hurrengo urte luze hauetan
irabazi ta bai heldu. (bis)

Bertso munduan aspalditikan
daukagu etorkizuna,
gure bertsoek gainera dute
urrutira oihartzuna,
nor bait ausartzen bada nirekin
etor bedi Oiartzuna,
eta orduan jasoko dezu
momentuan erantzuna! (bis)

Doinua: Balentin
Berriotxoarena

Oiartzungo taldea: Beñat, Ekaitz, Kimetz eta Ekain


Bat-batekoa kendu ondoren
sentitzen gara seguru,
urduritasun guzti-guztiak
etxean utzi ditugu.
Hona etorri, ederki pasa
horixe dugu helburu,
lehiarik gabe bertso saioan
hobeto pasako dugu.

Lehen batzuek galtzen zuten ta
ematen ziguten pena,
aurtengo hontan aldatu dute
lehiaketaren eskema,
ea horrela jarraitzen duen
etortzen naizen hurrena,
epaile batek ez du esaten
zein den talderik onena.

Beste taldeko partaide denek
tranpa egin nahi ziguten,
epaile denak sobornatzeko
ideia on bat zeukaten,
urdaiazpiko handi batekin
engainatu nahi zituzten,
baina Lasarten saio honetan
epailerik ez da aurtan.

Bat-batekoa kendu dute ta
nukatu zait neri ikara,
gu gusturago aurkitzen gara
epailerikan ez bada,
presio gabe lana eginda
hobeto aritzen gara,
aurten Lasarten bertso saioa
askoz hobea izango da!

Hona etorri irabazteko
pentsamendu hori da ergela,
zuek ez dezue irabaziko
gaur pentsatuaz horrela,
aurten beraiek lortu nahi zuten
saio honetan txapela,
pentsatzen dute Amets Arzallus
baino hobekak direla...



Doinua: Pello
Joxepe

Oiartzungo taldea: Ander, Anje, Garoa eta Ekaitz



Oiartzungo taldeetako bat agurra kantatzen



Oiartzuarra, batzuk behintzat, txapelketaren alde!

GAIA: Anek egun txarra izan du eta gauean Beñat aitarengana doa.

Doinua: Kantore berri xarmant batzuek

① ANE LABAKA

Lehen bizikletan erori naiz ta
urratu egin zait azala,
zure beharra sentitzen nuen
etxeraka nindoala.
Hartu nazazu beso artean
nik behar dudan bezala,
hori bakarrik behar det aita:
norbaitek entzun nazala. (bis)

Esaten dezu: ze ari naiz ni
zure txorradei begira,
baina badaukat zerbait barruan
esplikatu det di-da:
gaur egun txarra eduki det bai,
mila arazo guztira,
zuretzat txiki diren horiek
neretzako haundi dira. (bis)

② BEÑAT GAZTELUMENDI

Maiz entzuteak nola goxatu
omen ditzakeen tragoak,
espero det zuk denak ahanztea
aitatxoren abaroak,
nahiz eta kolpe handi xamarrak
gaur dituzun igaroak
bizitzan hartu behar dituzu
oraindik handiagoak. (bis)

Arazo txiki asko badira
horrela korabiratzen,
txiki zirenak joaten dira
pilatzen eta pilatzen...
Baina alferrik dezu gauero
nere babesa bilatzen,
ikasi beharra dago arazoei
aurrez-aurre begiratzen. (bis)



Beñat Gaztelumendi, errimekin kantuan

Arazo hoiek dauden moduan
ni aurrez-aurre naukazu,
nere hitz hoiei gaurko honetan
egin nahi nieke kasu.
Zuk egun txarra izan dezu gaur,
nere modura zaude zu
besarkada bat emango dizut
ta muxu eman zaidazu. (bis)

Baina muxuek ere gustua
galdu ohi dute fabrikan,
zortzi orduko turnoa eginez
ta sosik gabe patrikan...
Besarkada hori eman zaidazu
Ane, esnatu berritan,
buruko minez nagoenean
goizeko zazpi t´erditan. (bis)



Amaia Agirre, Ane eta Beñati gaia jartzen

GAIA: Beñatek egin duen bizkotxoaren bihotz formako puska eskatu dio Anek

Doinua: Kantatzera nihoa

① BEÑAT GAZTELUMENDI

Ligatzeko lehenago
ez nuen indarrik,
proposamenak ez du
berez ezer txarrik,
gainera etorri zera
berotu xamarrik,
kandela hauek ez dute
suaren beharrik. (bis)

Lasai, moztu nezake
bihotza neurrira,
bandejatik dardarka
urruti erretira,
ta kolpeka lurrera
erortzen badira,
bihotz apurrak soilik
geldituko dira. (bis)

Ane, ez da komeni
dena eskatzea,
pentsatu nuen tarta
gaurko prestatzea,
bihotz forman zaila da
biak elkartzea,
ez al zenuke hobe
osorik hartzea? (bis)

① ANE LABAKA

Neretzako sua da
Beñaten ahotsa,
berotu naizela, bai,
azkar joan zait hotza!
Bi borobiltxo dauzka
ta punta zorrotza,
juxtu horrelakoa
da nere bihotza. (bis)

Nik lurretik nahi ditut
papur hoiek hartu,
nereak diren hauek
zure hortan sartu,
bihotz forma horrela
dezu zuk pintatu
ta mesedez etzazu
erditik puskatu. (bis)

Zuk hala eskatuta
hartuko det dena,
horixe baita orain
egin litekeena,
tximeletak dauzkat nik
tripetan barrena,
muxu bat da zuretzat
opari onena. (bis)



Oiartzungo harribitxi berriak



Beasaingo taldea agurra kantatzen: Naroa Aranburu, Garazi Gibelalde, Ekain Imaz, Nerea Jauregi, Xiker Larrea, Beñat Imaz, Xanet Mendizabal, Hodei Zabaleta eta Asier Olano

ZUMARRAGA

Bertsopaper ariketa, Zumarragako Zelai-Arizti kultur etxean:

Legazpi, Oñati, Urretxu eta Zumarragako ikasleak



Saio didaktikoa, Zumarragako Zelai-Arizti aretoan:

*Zumarraga-Urretxuko talde bat (Malen, June, Jone, Maialen, Aner, Maddi, Aitor, Maddi, Igone, Irati, Iune, Alazne, Haritz, Izaro, Maialen, Nahia, Sara, Laura, Ane, Maren Amaia, Cristina, Jone, Alaitz, Uxuri, Oier, Unai eta Eider)

*Legazpiko talde bat (Izaro Badiola, Jone Narbaiza, Mikele Arizkorreta, Lierni Ugarte eta Oihane Gurrutxaga)

*Nerea Elustondo eta Amaia Iturriotz



Zumarraga-Urretxuko bertso eskolako koadrila...



...denok batera agurra kantatzen

Arratsaldeon guztioi
hau da gure ongietorria,
denok jakin ezazue
herri hau ez dela berria.
Egun osoa kantari
eta aurpegian irria,
bizi-bizirik dagola
Iparragirrereren herria!

Munduko herrin artean
Urretxu-Zumarra onena,
hobekuntzak egin nahian
hau da hau, degun eromena!
Gure herriko gazteok
badegu aldarrikapena:
jolas lekua nahi degu
bat ere bustitzen ez dena.

Gure herria da Urretxu
ta ondoan dago Zumarra,
baina guretzat da herri bat
ni naiz bai zumarragatarra!
Gazteok eskatzen dugu
saskiko kantxa bat earra,
gurea daukagu eta
jadanik pixka bat zaharra...

Urretxu-Zumarraga da
Gipuzkoako herri onena,
taberna asko ditugu
eta ere badegu trenra,
asteburuetan edo
antzerkia eta zinema,
zein handia ta polita
den gure herri maiteena.

Nahiz eta gure herria
ez den berez oso handia,
gu gustura bizi gera
eta horixe da egia,
jolasen bota ohi degu
denok batera izerdia,
hondartzarik ez daukagu
baina badaukagu mendia.

Munduko herririk onena
esaten dizugu egitan,
maite genuen umetan
eta maiteko degu haunditan,
bertso saioa da orain
ez zaitezte joan korrikan,
ondo pasa ta etorri
nahi dezuenean bisitan!

LELOA

Urretxu eta Zumarraga
oso politak dira hara
bertso eskolan jokuk eta algara
gu hemen pozik bizi gara!

Zumarraga-Urretxuko bertso eskola

Begiumelak

KANTATU NAHI DUGU POZEZ

*Kantatu nahi dugu pozez
nahiz eta bapatean, ez!
Sudur gorria lagun dugula
etorri gara umorez.*

Hamalau urte dauzkagu
gure hanka gure buru
nahiz eta adin mugetan egon
bapatea dugu helburu.

Kantatu nahi dugu pozez...

Txikian, handian hari
berdin puntutan, koplari
bapatekoa kendu digute
bada hainbat agintari.

Kantatu nahi dugu pozez...

Nagusiak mahaian bueltan
plan ederra da benetan
eta gu berriz utzi gaituzte
inbidiaz ta penetan.

Kantatu nahi dugu pozez...

Baina hala da bizitza
gai hontan ez dugu giltza
bertso jarriak osa ditugu
erabili nahian hitza

Kantatu nahi dugu pozez...

Esan nahi genuke apal
hemen norbait dabil makal
agian Bertsozale Elkarte
edo Mikel Mendizabal

Legazpiko taldea: Izaro Badiola, Jone Narbaiza, Mikele Arizkorreta, Lierni Ugarte eta Oihane Gurrutxaga



**Legazpiko bertso eskolako gaztetxoak jo eta su
Joxe Arizkorretaren laguntzarekin**

Nerea Elustondo eta Amaia Iturriotz: HASERAKO AGURRA

Doinua: Sorlekua utziz gero

@ITURRIOTZ

Orain arte egin gera
guztien kantuen jabe,
mikrofonoa hartuta
biok gatoz oso xuabe,
zuek adina bertso gustura
eingo ditugu halare,
ea bertsotan egin daitekeen
bate gitarrarik gabe.

@ELUSTONDO

Nik ere arratsaldeon
esan dezadan lehenengo,
nerabe artean gaztego
sentitu arren urtero,
egia esan garai hauetan
ez nuen asko espero,
eskolartekoan kantauko nunik
hamabost urte ta gero!



Nerea Elustondo gaztetxoei zirika

GAI: biok ahizpak izanik, Amaiak ezin du biharko azterketa prestatu, alboko gelan Nerea gitarra jo eta jo ari baita.

Doinua: Nere senarrarekin

@AMAIA ITURRIOTZ

Ez da isiltzen eta
nik nahiko nuke hil,
abestia ez zaizu
irteten borobil,
hara ba, nere ahizpa
ez dena hain abil,
eskolartekorako
entsaiatzen dabil. (bis)

@NEREA ELUSTONDO

Nerbiotan zabilta
benetan lehertua
ta ez daukazu neri
gaur zer eskertua
eskolartekoarena
dezu ulertua
ba, bai, bihar da nire
lehen kontzertua. (bis)



Nerea Elustondo kantuan eta Amaia Iturriotz berari begira

Aizu, denbora ere
badezu oraindik,
nik azterketa daukat
ta ez dute gutxik,
gaizki irteten zaizkizu
zuri nota guztik,
baina neri okerrago
aterako zaizkit. (bis)

Zu zabiltz teorian
eta ni praktikan,
bazatoz eta ez naiz
juango erritan,
bazaude isil-isilik
ikasi irrikan,
ogi-apurrak sartu
zure belarritan. (bis)

Ez zera isilduko
ze ahizpa ergela,
ogi-apurrik ez det
nik sartuko bela,
ikusiz egoera
nahiko txar detela
txuleta egingo det
Anerrek bezela. (bis)

Erabaki ona da
ezin dut ezkuta,
Anerren bideari
zabiltz jarraituta,
egizu bai txuleta
koartoan sartuta,
zure bronka baitator
deskafeinatuta. (bis)



Beñat Torres, oholtzako gaztetxoak gobernatu nahian...

GAIA: Amaia bertsolaritzako udalekuetara apuntatu da eta Nerea, berriz, ingelerako udalekuetara.

Doinua: Kontzientzia izaten degu

@NEREA ELUSTONDO

Hemen gabilta udalekuen *planing*-arekin borrokan, zuk bertsotara joan nahi dezu seguru zabilta hortan, nik ingelesa sartu nahi nuke nere jakintzan errotan, probatu nahi det nola egin leiken ingelesez ta bertsotan.

@AMAIA ITURRIOTZ

Zuk esan dezu biak nahi eta pentsaketa hortan zabiltz zu, neri ingelesak aizu ematen dit uda garairako izu, bertsotan ere egin nahi dezu, hori zer den ez dakizu, ingleseko bi hitz ondo rimatzen majo kostatuko zaizu.



Gaztetxoak bertsolari "handientzat" errimak prestatzen

Ba, nik nahiko errez rimatzen ditut bai, “*easier*” ta bai “*lower*”, zure sermoiak pixka-pixka bat ia aspertu nau, joder, udalekutan jasotzen degu hamaika bisita eder, zuei Egaña joango zaizue eta guri *Justin Babier*.

Zure ustetan bien artean Egaña omen da txarra, nik bere alde egingo nuke udalekuen indarra, hala ta guztiz antzeko dira ta daukat esan beharra, ilea baita horiek biak ezberdintzeitun bakarra.

Arrazoi dezu hortan, Amaia, ez zen arrazoi kaskarra bikote horrek euren aldetik biek baitute indarra, zer dala eta sortu ote zaigu hain eztabaida zakarra hizkuntza baita udalekuen diferentzia bakarra.



Zumarraga-Urretxuko gaztetxo tropela

LAZKAO

Bertsopaper ariketa, Lazkaoko San Benito ikastolan:

Zaldibia, Ordizia, Beasain, Ataun eta Lazkaoko ikasleak



Saio didaktikoa, Lazkaoko Azeria zineman:

*Lazkaoko 2 talde (Ane Etxezarreta, Mikel Etxezarreta, Mara Narro, Aratz Ojanguren, Aitzol Lasa, Manex Usarralde, Iker Etxeberria, Zuhaitz Meliz, Aritz Aiestaran eta Yeray Sanguino)

*Beasaingo talde bat (Joseba Llorente, Jakes Alustiza, Aritz Garcia, Nashara Pardo, Jone Gisasola, Maria Olano, Ane Argandoña, Sara Van de Driessche, Maddi Aiestaran eta Markel Santos)

*Ordiziako talde bat: Laida Zabaleta, Maddi Aiestaran, Itziar Mendia eta Oier Ibarzabal

* Gemma Urteaga eta Aitor Sarriegi

Aurkezlea: Amaia Agirre



Maddi Erauskin, Jakes Alustiza, Jone Gisasola, Joseba Llorente eta
Rebeca Perdes



Iker Etxeberria, Aritz Aiestaran, Ane Etxezarreta eta Maro Narro

ILARGIA (Ken 7)

Esan munduari gure
hitza entzuteko,
ta esan txapelketari
berriz etortzeko.

nanana, nanana...

Eusten nauen soka zara
aitortzen nauena,
baina aurten pikutara
joan zaigu dena.

nanana, nanana...

Zuretzat txapel beltza
lapurtuko nuke gauero,
gaztetxoan txapelketan
parte hartzerik balego...

Irribarrez, gero minez
eragin didazu negarra,
lehia edo txapelketa
ez zaigu iruditzen
horren txarra, hain txarra.

nanana...

Batzuntzat txapelketa da
lehia, sesioa
baina beste batzuntzat
motibazioa.

nanana, nanana...

Agian, komeni zaigu
hau ezberdintzea:
aukera ematea ez
da derrigortzea.

nanana, nanana...

Zuretzat txapel beltza...
lapurtuko nuke gauero,
gaztetxoan txapelketan
parte hartzerik balego...

Hara, gure gozatzea
gaur daukagunez
helburu bakarra, bakarra

Goierriko bertso eskolako Ordiziako taldea: Laida
Zabaleta, Itziar Mendia, Maddi Aiestaran eta Oier
Ibartzabal



Ordiziako gaztetxoak (Oier, Laida, Itziar eta Maddi), Ken 7-ren doinuan kantuan



Nashara Pardo, Uxue Urien, Markel Santos, Sara Van de Driessche, Jone Gisasola, Maria Olano eta Maddi Erauskin

Aitor Sarriegi eta Gemma Urteaga: HASERAKO AGURRA

Doinua: Zer da gaur Donostian?

@SARRIEGI

Bat etortzen denean
hauek entzutera,
gogora etortzen zaio
beraren hasera,
orduko nerbioak,
kezkak eta zera,
baina eskolarteko
txapelketa hauxe da:
formatu ezberdina,
izpiritu bera. (bis)

@URTEAGA

Bai, aldaketak datoz
hona eta hara,
nahiz eta batzuentzat
agian den traba,
berdin egin daiteke
irri ta algara,
Ordiziako taldeak
esan dun gisara:
hemen garrantzitsuna
disfrutatzea da. (bis)



Aitor Sarriegi eta Gemma Urteaga

GATA: Aitor, konturatu zera Gemma, zure 14 urteko alaba, egun guztian mugikorra eskuetan duela dabilela.

Doinua: Nafarroako mendi gainetan

①AITOR SARRIEGI

Opari gisan behin jaso baina
bihurtu zaizu kondena,
egun osoan hari begira
zer nolako itomena,
lagunak urrun jarri dizkizu
ta eten dizu sormena,
eskuartean dezuna al da
zure lagunik onena? (bis)

Aita moderno izan nahi nuke
baina ez modernoegi,
zerbaiterako gera gaur biok
sukalde aulkian eseri,
nik hitzegin ta zu behera begira
berriz segi eta segi,
noiztik ez zera lagun batekin
egon aurpegiz aurpegi? (bis)

②GEMA URTEAGA

Zukin hitzetea ene aitatxo
degu denbora galtzea,
adiskideak edonon dauzkat
ta ez da gero trantzea,
barkatu baina horren grabea
al da *watsapeatzea*,
zuk ere aita hobe zenuke
pixkat modernizatzea. (bis)

Zure hitz hoiek entzun ostean
gelditu zera hain lasai,
hala ta guztiz erantzuteko
orain izan behar naiz gai,
nire lagunak maite ditut nik,
besterik ez dut esan nahi
mobilan bidez egoten naiz bai,
baina pertsonan ere bai. (bis)



Aitor Sarriegi, kantua

Hala diozu alaba, baina,
egiarik ez diozu,
lagunartean behera begira
berdin egoten zera zu,
astebetean mobilik gabe
aproba egin ezazu,
eta agian gauza berriak
deskubrituko dituzu. (bis)

Esan dezuna entzun ostean
ni ez naiz ibiliko grabe,
zure ideia bota dezu ta
iruitzen zait paregabe,
mobilik gabe egon behar det
astebetean halare,
baina, hori bai, zu eoten bazea
tabernara joan gabe. (bis)

Hala egongo naiz ba orduan
hori bada nahi dezuna,
hortarako ere prest dago aita,
nire alaba kuttuna,
azken batean konturatu naiz
neu naizela erruduna,
madarikatu nahi det mobila
erosi nizun eguna. (bis)

Beti kexuka eta marmarka
zabiltza ari ta ari,
gu ere ez gera dagon onena
nahiz beti zauden kantari,
mobila degu hain dotorea
hau da neretzat opari
eta zuk berriz, pakean utzi
pakean dagoenari. (bis)



Iker Etxeberria, Zuhaitz Meliz, Ane Etxezarreta, Aritz Aiestaran,
Mara Narro, Aratz Ojanguren, Yeray Sanguino, Aitzol Lasa, Mikel
Etxezarreta eta Manex Usarralde.

Aitor Sarriegi eta Gemma Urteaga: 4 OINAK EMANDA BERTSOA

Doinua: Esnesaltzailearena

@SARRIEGI

euskera, galdera, bagera,
batera, gaztelera, aurrera

Matematika, natur,
etika, euskera
edo gaztelera
kalabazak zakuan
sartu ta aurrera,
behintzat eramateko
kapazak bagera
aprobatu dituzun
hori da galdera
kabitzen ote ziren
guztiak batera. (bis)

@URTEAGA

neskamotza, bihotza, airosa,
mototsa, kokotza, lotsa

Txapelketara joan
zen behin neskamotza
gainera airosa
gogoan dut buruan
nuela mototsa,
mikroaren parean
jarrita kokotza
nahiz eta hasieran
izan pixkat lotsa,
bertsotan beti utzi
izan dut bihotza. (bis)



Errima bihurriak Aitor eta Gemmarentzat

ELGOIBAR

Bertsopaper ariketa, Elgoibarko ikastolan:

Aretxabaleta, Eskoriatza eta Elgoibarko ikasleak



Saio didaktikoa, Lazkaoko Areria zineman:

*Soraluzeko taldea: Anton Akizu, Marko Akizu, Galder Unamuno, Jokin Iribar eta Urko Aizpuru.

*Amaia Agirre eta Iñaki Gurrutxaga

Aurkezlea: Irati Agirreazaldegi

Soraluzeko bertso eskolako taldea (Urko, Jokin, Antton eta Marko)
EZKUTUKO PERTSONAIA ASMATZEN

Doinua: Aita semeak

Urko → Karlos Argiñano

Pilotariak ikusten ditu
toki baten zein bestean,
baina txapela jantzita dabil
soilik lapiko artean.

Beti txisteak kontatzen ditu
oso txarrak, oso gaizki,
saltsa denetan sartuta dago
beti lapiko ta guzti.

Jokin → Edurne Pasaban

Hamaika mendi igo dituen
mendizale ezaguna,
hainbeste txango inguruan ta
beti urruti laguna.

Hamaika esan ditugu baina
agian ziren hamalau,
hainbeste mendi igo ondoren
alturako gaitzak jo nau!

Anton → Lazkao Txiki

Gure hurrengo pertsonaiari
entzun izan diogunez,
Lazkaon jaio omen zen bera
ta hazi berriz inon ez.

Ideiak fresko buruan argi
eta mingaina zorrotza,
gorputz txikia eduki arren
handia zuen bihotza.

Marko → Marijaia

Ile horia, muxu gorria
koloretsu, koloratzen,
ta badirudi baten bat dula
pistolakin apuntatzen...

Pertsonaia hau bizkaitarra da
euskaldunen gustokoa
ta Mari da bere izena baina
ez degu Anbotokoa.



Urko Aizpuru eta Anton Akizu Soraluzeko bertsolari gazteak



Eneko Beretxinaga, irakaslea, eta Jokin Iribar, Urko Aizpuru, Anton Akizu eta Marko Akizu gaztetxoak

Amaia Agirre eta Iñaki Gurrutxaga: HASERAKO AGURRA

Doinua: Anai-arrebok hementxe nator

©AMAIA AGIRRE

Arratsaldeon, ongi etorri
denok eskolartekora,
kantura nator gaur zuen maixu
Gurrutxagaren ondora,
ea asmatzen degun gutxinez
biok bertsozik-bertsora
hola kanpoan degun giroa
bezain ona izango da. (bis)

©IÑAKI GURRUTXAGA

Ostiral baten lau t´erdietan
zein dator ikastolara?
Plaentxitarrek kantatu dute
eta a ze espantada,
orain kantura etorri gera
Agirre ta Gurrutxaga
igual onenak ez gara baina
hain txarrak ere ez gara. (bis)



Amaia Agirre eta Iñaki Gurrutxaga

GAIA: Amaiak argazki xelebre bat jarri dio Facebook-en Iñakiri.

Doinua: Eguna pasa nekean eta

📍 IÑAKI GURRUTXAGA

Orain bi aste joan ginela
ikasbidaia batetan,
horrelakoak oso gutxitan
izan ditugu urtetan,
Facebook-en sartu eta a ze sorpresa
hartu dudana benetan,
zergatik egin ote zenidan
argazki hura dutxetan? (bis)

Orangutana ematen det nik
berdin esna eta lotan,
baina oraintxe ipini nauzu
jende guztian ahotan,
guapoena ni omen naizela
inguru hontako guapotan,
horrelakorik ez dute jartzen
beheko komentariotan. (bis)

Egun osoa izerdi tantan
banuen nahikoa premi,
eta holako argazki batez
mundu guztiai eskaini
arrazoi dezu, dutxa barruan
pinta eskasian nintzen ni
baina jaboia aurkitzekotan
betaurrekoak komeni. (bis)

📍 AMAIA AGIRRE

Ni dutxan sartu kamerarekin
ta Iñaki parez pare,
pentsatu nuen: atera behar
dizkiot orain goi ta behe!
Hemen ilea, hemen ilea
hemen ilea bazpare,
ia tximu bat ematen dezu
baina oso guapo zaude. (bis)

Behin despistatu zinen dutxan ta
atera zaizu garesti,
nik intentzio onez egin det
ta ez zazu hartu gaizki,
komentario dexente daude
ta normala degu noski,
dutxara nola sartu daitekeen
betaurreko eta guzti! (bis)

Betaurrekoak ezinbesteko,
miopia du tarteko,
baina ikasleek oin oharrekin
ez dute hainbat errespeto,
guztiak parrez ipini ditut
aurreko eta atzeko,
elgoibartarrek eskatzen dute
klasera hola joateko. (bis)

Elgoibartarrak hasi omen dira
komentario lanean,
horrelakoak buelta behar du
derrigorrez azkenean,
biluzik ikusi nahi nautela
diote ondorenean,
striptease latza egingo diet
hurrengo asteazkenean. (bis)



Nora, Asier, Ane, Oier eta Urko



Anton, Imanol, Nora eta Asier

GAIA: Atzera begira, nola irudikatzen duzue elkar ikasle garaian?

Doinua: Nere senarrarekin

© AMAIA AGIRRE

Iñaki zer ote zan
ume garaietan,
imajinatu nahi det
arlo guztietan,
irrifartxo batekin
bere ezpainenetan
irakasle guztiei
alukerietan. (bis)

© IÑAKI GURRUTXAGA

Esan nahi ez nukeenik
ez hasi esaten,
nola jendeak gaizki
pentsatu dezaken...
Amaia imajinatu
nahi det zelai baten,
futboleko guztiei
egurra ematen. (bis)

Klaseko listoa zan
ahoa nork itxi?
Bere gaitasun denak
nahian erakutsi,
behin ilargira ere
omen zen iritsi
eta geroztik ez da
ilargitik jaitsi. (bis)

Honek irakasleak
sarri parez-pare
ahozko azterketa
galde eta galde,
jardun ederra zeukan
xuabe-xuabe,
dena aprobaten zun
ezer jakin gabe. (bis)

Silatik altxa eta
brinko eta salto
beti gaiztakeritan
begitan bi malko,
pation porterian
ipini beharko,
jokalari bezela
eskasa zelako. (bis)

Benoa, zaudete, beraz,
gure jakiminez,
esplikatu nahi nuke
nire ahaleginez,
Amaia iritsi da
urrutira oinez,
futbolen ezin zuna
bertsotan eginez. (bis)

Iñaki Gurrutxaga eta Amaia Agirre: 4 OINAK EMANDA BERTSOA

Doinua: Dama gazte xarmant bat

📍GURRUTXAGA

euskalduna, zalduna,
isuna, tuntuna

Lehengo klasekoa naiz
gutziz euskalduna
gaur zaldiz etorri naiz
hemen naiz zalduna,
zaldiari ipini
diote isuna
zergatik jarri diozu
udaltzain tuntuna? (bis)

📍AGIRRE

kometa, kopeta,
arreta, beteta

Hondartzara joan nintzen
hartuta kometa
haizerik ez ta zulatu
zitzaidan kopeta
ze ostia hartu non
ipini arreta
orain aurpegia daukat
hondarrez beteta (bis)



Amaia Agirre eta Iñaki Gurrutxaga atzekoak zirikatuz

Iñaki Gurrutxaga eta Amaia Agirre: EZKUTUKO HITZAREN JOLASA

Doinua: Ikusi nuenean

① AGIRRE

Hau zer degu pertsona edo objektua?

Izan leike zure ama edo bizikleta

Pentsa pertsona dela neska edo mutila:

Beraz, gauza al degu ta geldi al dago?

Ta inoiz telebistan ikusi al dezu?

Animali ba al da, jakin nahi nuke?

ETBn inoiz, Gurru agertu ote da?

Ta zein lekutan dago zure etxe barruan?

Nik erloju bat daukat baina, hori al da?

Asmatu al det joño, ez zen hain zaila, ba

Ez zait iruitzen asko lagundu dezunik

Guk biok baitauzkagu bi orratzak oker:



① GURRUTXAGA

Nire etxean badu beretzat lekua.

Segi pistak galdetzen ondo zabiltz eta.

Bazpare ez zaitez joan pertsonaren bila.

Mugimenduan dabil geroz ta gehiago.

Batzutan azaltzen da, ikus dezakezu.

Objektu bat degula esango digute.

Noizbait agertu zaigu euren arabera.

Paretetik zintzilik daukat sukaldean.

Orain beherantza hasi zaizu zure malda.

Normala, pista ematen hoberena bada.

Laster asmatu dezu ba nik pista emanik

Hemen ere antzera dabilta ta joder.

Iñaki Gurrutxaga eta Amaia Agirre: PUNTUARI ERANTZUN

Doinua: Haizeak bidali du

AGIRRE

*Egunero egiten
al dezu bertsotan?*

Ez, zortzi ordu edo egoten naiz lotan baina dantzan kantari nabil ni askotan eta goizetan ohi det nik honelakotan.

Kantatu edo entzun zer dezu nahiago?

bertso onak badira beheran pozik nago baina txarrak badira orduan akabo baina jendea bitan egon beharra dago.

GURRUTXAGA

*Twiterra, ta facebook-a,
Twenti-a, Watsapa...*

horrelakorik behintzat gaur ez zaigu falta mobilak ematen dit aldiro matraka hobe gaude mobilak etxean lagata.

*Koadrilan lagunekin
hobeto berbetan:*

facebook-en artean gera gehienetan baina tokia degu noski tabernetan mingaina luzatzen zait ostiral gauetan.



Elgoibarko ikastolako aretoa jendez lepo

Iñaki Gurrutxaga eta Amaia Agirre: ZELAKOAK IMAJINATZEN DITUZUE ATZEKO HAUEK?

Doinua: Bertsoak jarri dizkat

@GURRUTXAGA

Paparazzi bat daukat
orain muturrean,
gaizto gaiztoa dena
beti haserrean,
ta txintxo aurpegiakin
amaren aurrean (bis)

Ondoan dagonakin
kontuak atera
isil isilik dago
gutxi-gorabehera
gaina Elgoibar osoko
kotila da bera (bis)

Bere ondoan dagona
ere nabarmena
piska bat lotsatia,
bertsotan onena
ta bertso eskolakoei
laguntzen diena (bis)

Eta jarraituko det
aldamenetikan
begira aurpegia
begiratu bitan
ea nork esaten dun
nahikoa danikan (bis)

Orain aldamenekora
noa ta gustura
hau lotsati hutsa da
a ze abentura,
ondokoagatik ere
bera lotsatu da (bis)

@AGIRRE

Urkok noski ez dauka
eskua elbarri
dardarka dabil baina
grabatzen du sarri
grabatu zazu baina
Facebook-en ez jarri (bis)

Pilotari traza du
beiratz berehala
kotila omen degu
atsoak bezala
ta kamixeta ustez
internazionala (bis)

Lagunen lagun bat da
ez da lagun txarra
lehen errimak idazten
hortxe tirri-tarra
nire ustez bera da
gelako azkarra (bis)

Ederra aurpegia,
ederra tipoa
eta hankaren taila
kuarentaipikoa,
nik ez det jaso nahi gaur
bere ostikoa (bis)

Ahoa tapatzeko
eskuz zenbat truko
diskretoak ez dana
geu gera lekuko
zapatila hoiekin
ez zera galduko (bis)

Ta alboan dagona
era xuabea
horrela mintzatzen da
ta ez nobedadean
bihurririk ez al da
Elgoibar aldean(bis)

Ondoan dagoenak
badu bere fama
lehen bertsoan aritu
ta ondo bete lana
Lazkao Txikin parera
iritsiko dana (bis)

Ta orain sartuko naiz
eskinako horrekin
zutik ta lasai dago
ondotik beinepein,
Edurnezuri ematen du
zazpi ipotxekin (bis)

Irribarre egin du
ez da esan beharrik
hau ere somatzen det
lotsati xamarrik
santu itxura baina,
itxura bakarrik (bis)

Ea, ba izaten dun
hortan arrakasta
lehen bertsoatan jardun da
lasai, plisti-plasta
nik ere hartuko nuke
honek daukan kasta (bis)

Ez da ederra izan
Gurrun balantzea
gaixoak sarri-sarri
pasa dun trantzea
ez da Edurnezuri
baizik ta printzea (bis).

AZKOITIA

Bertsopaper ariketa, Azkoitiako Floreaga ikastetxean:

Itziar, Azpeitia eta Azkoitiako ikasleak



Saio didaktikoa, Azkoitiako Floreaga ikastetxean:

*Itziarko taldea (Jare Bengoa, Aloan Salegi, June Sudupe, Ibai Ponce, Amalur Ponce, Goretti Unanue eta Aitor Arakistain)

*Eneritz Artetxe eta Jokin Uranga

Aurkezlea: Amaia Agirre

Agurra - ITZIARKO taldea

Kaixo, arratsaldeon
gu turistak gera,
japoniatik gatoz
Azkoiti aldera.

Gida ta guzti gatoz
panfleto askokin,
ea zer gauza politak
dauzkaten Azkoitin.

Jakin nahiko genuke
bertakoen berri,
daukaten hizkerekin
ezin da igerri.

Salto ta brinko beti
erdi makurtuta,
gero belaunburutan
prakak urratuta.

Nik ezagutzen nuen
Etorri aurretik,
Japonen ikusi det
ETBSATetik...

Gida naiz eta azalduko det
nolakoa den Azkoiti,
pilotarien herria da hau
horrela izan da beti.
Oteizak ere frontoi ederrak
egin zituen egoki,
afizioa daukanarentzat
badago nahikoa toki. (bis)

Ze arropa arraro
Pelotariena,
praka motzak janztea
litzake onena.

Kirol arraroa da
ia gera aspertzen,
saiatzen gera baina
ez degu ulertzen.

Ni naiz Xabier Euzkitze eta
ez naiz gonbidatu hutsa,
erdi azkoitiar naizen ezkerero
etorri nahi non honuntza,
pilota gogor astintzea da
kirol honek duen funtsa,
adio lagun japoniarrak
ondo bizi, izan untsa! (bis)

Zein ote zen gizon hau
jardun da xuabe,
ondo lagundu baitu
guk eskatu gabe.

Ba nik ere jakin det
gainera gaurkoan,
gaijartzaille jardun zun
eskolartekoan...

Bertsolaria da bai Euzkitze
eta on ona benetan,
eskolartekon aritu zena
gaijartzaitza lanetan
ta zuek sartu zeratenez gaur
areto eder honetan,
igual bertsotan ondo ikasita
joango zerate bueltan. (bis)

Nik ez dakit seguru
zer diren bertsoak,
famatuago dira
hemengo pintxoak.

Ba behera begira
egon naiz pentsatzen,
ez zaizkiela zaharrei
bakarrik gustatzen.

Lehen agurtu naiz zuekin baina
berriz nator zuengana,
esplikatzeko bertsolaritzak
Euskal Herrin duen fama,
gazte jendeak asko maite du
bertsotan egiten dana,
hizkuntzarekin adar jotzea
ez da hainbesteko lana. (bis)

Nik entzun det direla
kantuzko poetak,
jende zaharrak bakarrik
maite dituztenak.

Ez da alferrik izan
honako bisita,
Japoniara goaz
asko ikasita.

Itziarko bertso eskolako taldea: Amalur, Goretzi, Jare, Aitor,
June, Aloña eta Ibai

Kopla doinua: Hona bildots ezti
Zortziko handiaren doinua: Balentin Berriotxuarena



Itziarko taldea agurra kantatzen



Turista japoniarren paperean

Eneritz Artetxe eta Jokin Uranga: HASERAKO AGURRA

Doinua: Balendin Berriotxoarena

ENERITZ ARTETXE

Japoniarrak gure herrira
datozenez gaurko hontan,
Azkoitin hobe ez fijasza
Euzkitze ta holakotan,
beraz, kantuan hasi nahi nuke
ez dakidanez pelotan,
japoniarrei erakutsiaz
badakigula bertsotan. (bis)

JOKIN URANGA

Bertso gosea nabari dela
ezin genezake uka,
azpeitiarrek joan beharra dute
nahiz ta saioa ez buka,
baina Mikelek beste behin ere
erremeiua ipini du ta:
ikastolara eramango det
bideoan grabatuta. (bis)



Eneritz Artetxe eta Jokin Uranga

GAIA: bertso eskolako ikaslea zara, Eneritz, neska bakarra, ez zera eroso sentitzen taldeko 7 mutilekin. Jokin irakaslea, oraintxe hurbildu zaizu

Doinua: Egun berezi bat bazela gaur

@JOKIN URANGA

Mutil hoiekin nik ondo dakit
zail dala jarduten errez,
baina zu oso ona zarela
azaldu nahi dizut aurrez,
bi malko lodi irten zaizkizu
gaurkoan halabeharrez,
baina mesedez esan zaidazu
zergatik zaude negarrez? (bis)

Beraz, galdera hoiien artean
esango dizut alferrik,
aurpegi hori alaitu eta
ez egiteko negarrik,
zuk lotsagatik ez dezu berez
gaziki sentitu beharrik,
baina hori ezin daiteke landu
bertso eskolan bakarrik. (bis)

Arrazoi dezu, txorakeriak
lasai botatzen dituzte,
eta zuk berriz badezu hainbat
motibazio ta fuste,
horretarako kapaz direnik
eurek ere ez dute uste,
parre egiten dizute baina
miretsi egiten zaituzte. (bis)

@ENERITZ ARTETXE

Bi malko eta etorri zera
gaur zer ote zaidan pasa,
zazpi mutiko ni ito nahian
ezin dut hartu arnasa,
ta etorkizun hurbil batean
ezagutu nahi dut plaza,
galdera azkar eginagatik
ez dut erantzun erraza. (bis)

Astero-astero atera ohi naiz
haserre ta amorrus bero,
ta erantzuna gaur ematerik
Jokin ez zazu espero,
klase honetan sortuko nuke
hamaika mila endredo,
nere burura etorritako
dena kantatu ezker. (bis)

Ni gaizki uzteko mingain hoietan
dituzte hainbat latigo,
ta txikitzen naiz euren ahoa
zabaltzen duten aldiro,
hala ta guztiz helburu bat dut:
bertsotan goraino igo,
zu lasai egon, burua tente
itzuliko naiz berriro. (bis)



Errima zoroak asmatzen



Floreaga ikastetxeko aretoa, bertsozale gaztetxo betetik

GAI: Eneritzek, 14 urteko bere gelakidea den Jokin, pasieran eskuarekin jo du ipurdian.

Doinua: Dama gazte xarmant bat

©JOKIN URANGA

Lagun batzuekin lasai
nengoen hizketan,
ta, hara, ipurdian
zer sentitu detan,
esku hau astinduko
dizut orain bertan,
zuk ere euli handi bat
daukazu kopetan. (bis)

Euli handi handiak
bere neurrikoak,
beti nere atzetik
gauza tipikoak,
adin hortakoak ez
ditut begikoak,
neri gustatzen zizkit
hamazazpikoak. (bis)

Hau da lotsagabea,
hau da neska apala
uste det jakitea
betzat hobe dala
eskua ipurdira
luzatu ahala
igual puzkartxoren bat
irtengo zaidala. (bis)

©ENERITZ ARTETXE

Ez zazu gaizki hartu
horko euliarena,
bai, gezur bat esan det
beraz, ez da pena
zure gainean pasa
nahi dut egun dena
izan nahi nuke zure
euli handiena. (bis)

Hamazazpikoekin
baietz egon grabe
zu ez zaituzte maite
beraz, ondo ez zaude
eskua ipurditik,
pasa dizut xuabe
ta hurrena ahal bada
prakarikan gabe. (bis)

Usain txarra badauka
agian akabo,
baina joan harira, ez
luzatu gehiago,
mahaian zure ondoan
nagonez luzaro,
zure puzkar denekin
jada ohitua nago. (bis)



Aloña Salegi, hori da hori bertsolari itxura!



Azkoitiko arratsaldeko saioan, giro paregabea!

PUNTUARI ERANTZUN: Jokin Uranga eta Eneritz Artetxe

Doinua: Haizeak bidali du / Xarmangarria zira

📍 JOKIN URANGA

*Azpeiti edo Azkoiti
zein degu hobe?
Azpeitiko herria
da oso noblea
eta Azkoiti ere
guztiz dotorea
ni erabakitzeko
gai ez naiz ordea.*

*Hemen aurreko denak
ikasle al dituzu?
Baietza hemendikan
jakin dezakezu
zuri kasu gehiago
eiteizute aizu
hurrengo astean igual
etorri zaitez zu.*

*Nora joan behar dezu
Aste Santuetan?
Bihar goizean sartu
behar dut abionetan
ta aterrizatuko
dut Londresen bertan
ta nork daki etorriko
ote naizen bueltan.*

📍 ENERITZ ARTETXE

*Eneritz, zemuz zabiltz
maistra bezela?
Ikasleei galdetu
naiz maistra itzela
ta jakin pazientzia
piskat badetela
agian mereziko
dut noizbait txapela.*

*Ikasleen aurrean
nolakoa zera?
Igual hobe hor behera
zuzendu galdera
mejoratzen nihoa
astetik aстера
eta jarraitu nahi det
gaur arteko antzera.*

*Bertsoa edo futbola
zer dezu nahiago?
Jakizu futbolean
naizela hobeago
lehenoko ariketan
ez al zegon klaro
ta bertsotan ikasi
behar nuke gehiago.*

KOPLATAN

Doinua: Kontu berri bat suzeditu da

@URANGA

Ikasle hauekin oso gustora
baikabiltz bertsolaritzan,
ni Londresetik bueltatuko naiz
inork dudarik ez izan.

Ikasturtean zehar nahiz eta
zuek gure bihotzak bete,
opor aurreko egunean
ederragoak zerate.

Ba al dakizue ni ere bere
irakaslea naizela,
igual horrekin esan nahi du ni
faltan botako nauela.

Hamalau urtez ez naiz zurekin
ni alferrik ibilia,
ta aspaldian zuk ez didazu
kendu ipurditik eulia.

Bigarren aita entzun det eta
adinak a ze beldurra,
gauza gehiago atera aurretik
bota dezagun agurra.

@ARTETXE

Nola esan dezu zuk Londredera
egin behar dezula hanka,
lehen poz piska bat hartu dute bai
ta orain pena galantza.

Jokinek oporrak behar ditu
gaurko neke denen truke,
txorakeritan ari da baina
faltan botako zaituzte.

Bai, bere ikasle hamalau urtez
argi esan nahi dut hemen,
bere bistatik hobe dezue
kentzea ahalik azkarren.

Aspaldian ez dizudala nik
eulirikan kendu nahita,
nola egingo dizut, bai zera
nire bigarren goa aita.



Entzuleak adi

Eneritz Artetxe eta Jokin Uranga: AMAIERAKO AGURRA

Doinua: Zazpi ahizparen gai den oihala

📍JOKIN URANGA

Ikasketetan dena egiten da
sufritu eta gozatu,
iraila aldetik apirilera
egun askotan luzatu,
baina oporren garaia da ta
ia guztia osatu,
denok merezi dituzue ta
oporrak ondo pasatu.

📍ENERITZ ARTETXE

Bertsotan zerbait ikasi ote
dezute gaurko honetan,
Jokin ta biok ez gera alferrik
ibili ohi berriketan,
bi aste barru etor zaitezte
berriz bertso eskola bueltan,
baina ahal dalapakepiska bat
eman zazue oporretan.



Taldeko argazkia, saioaren amaieran

3-BERTSOPAPER SARITUEN BILDUMA



SARITUEN ZERRENDA GROKORRA

LH 3. eta 4. mailak (8-9 urtekoak)		
IRABAZLEA	Sara Garcia Rubio	Ordiziako Jakintza Ikastola
Aipamenak	Eritz Carcedo Diez	Elgoibar Ikastola
	Aratz Lasa Galparsoro	Ataungo Joxemiel Barandiaran eskola
	Leire Lizaso Uriarte	Zarauzko Salvatore Mitxelena Ikastola
	June Sudupe Beristain	Debako Luzaro Ikastetxea
LH 5. eta 6. mailak (10-12 urte bitartekoak)		
IRABAZLEA	Aner Perez Manterola	Zarauzko Orokieta Ikastetxea
Aipamenak	Anton Akizu Garcia	Plaentxiko Herri Eskola
	Julen Medina Mujika	Urnietako Egape Ikastola
	Aloña Salegi Alkorta	Debako Luzaro ikastetxea
	Uxuri Urrate Ibartzabal	Urretxu-Zumarraga Ikastola
DBH Lehen Zikloa (12-14 urte bitartekoak)		
IRABAZLEA	Iker Letamendia Barandiaran	Azpeitiko Iraurgi Ikastetxea
Aipamenak	Maddi Landa Etxabe	Zarauzko Salvatore Mitxelena Ikastola
	Araitz Sagarna Larrañaga	Oiartzungo Haurtzaro Ikastola
	Jone Narbaiza Martinez de Albeniz	Legazpiko Olazabal institutua
	Maddi Aiestaran Iparragirre	Beasaingo Loinazpe Ikastetxea
DBH Bigarren Zikloa eta Batxilergoa (12-14 urte bitartekoak)		
IRABAZLEA	Maialen Akizu Bidegain	Urretxuko JM Iparragirre Institutua
Aipamenak	Iraitz Mateo Gogorza	Oiartzungo Oiartzo Ikastola
	Iraitz Sarasola Lopetegi	Ordiziako Jakintza Ikastola
	Naroa Agirre Arozamena	Urnietako Egape BHI
	Aratz Igartzabal Bidegain	Beasaingo Txindoki Institutua

LH 3. eta 4. mailak (8-9 urtekoak)

IRABAZLEA: Sara Garcia Rubio (Ordiziako Jakintza Ikastola)

GAIA: Eskolara zaldi gainean joatea gustatuko litzaidake.

Astoa ikusi nuen



Nik badaukat zaldi bat
oso-oso polita
askotan egoten naiz
begiz itsatsita
zaldiaren atea
dago irekita
ederki joango naiz
gainean jarrita.



Sara Garcia Rubio, kantuan

LH 3. eta 4. mailak (8-9 urtekoak)

AIPAMENA: Eritz Carcedo Diez (Elgoibar Ikastola)

GAIA: Hondartzarik ez dugun arren, ederki dakit igerian egiten.

Astoa ikusi nuen



Elgoibarren ez dago
hondartza bat bera
baina pizina dugu
bustitzeko erara
igerian badakit
oso ondo gainera
eta nire saltoak
dira buruz behera.



LH 3. eta 4. mailak (8-9 urtekoak)

AIPAMENA: Aratz Lasa Galparsoro (Ataungo Joxemiel Barandiaran eskola)

GAIA: Eskolara zaldi gainean joatea gustatuko litzaidake.

Batetikan korrozka



Eskolara joaten naiz
beti bizikletan,
eta nire lagunak
oinez ta korrikan,
urruti bizi dena
taxian, kotxean...
baserritarra dena
Land Rover handian
ta nire ametsa da
joatea zaldian (bis).



LH 3. eta 4. mailak (8-9 urtekoak)

AIPAMENA: Leire Lizaso Uriarte (Zarauzko Salbatore Mitxelena Ikastola)

GAIA: Zorionsua naiz animalien artean.

Ama begira zazu



Nik animaliekin
ondo pasatzen dut,
lehoi eta tigreak
denak maite ditut. (bis)

Txakurra ta katua
nahi ditut niretzat,
nik katua hartzen dut
txakurra zuretzat! (bis)



LH 3. eta 4. mailak (8-9 urtekoak)

AIPAMENA: June Sudupe Beristain (Debako Luzaro Ikastetxea)

GAIA: Kanean galdutako txakurtxo batek etxeraino jarraitu dit.

Errota zahar maitea



Nondikan etorri da?
Nik ez dut ulertzen,
txakur hau hemen dago
gaur niri jarraitzen,
ez naiz konturatu ni
zeinen polita den,
etor zaitez nirekin,
nik hori nahi nuen.





Txikien mailako saridunak, Arantza Munduate eta Zigor Etxeburua sari-emaileekin batera



Elgoibar Ikastolan, bertsopaperak idazten

LH 5. eta 6. mailak (10-12 urte bitartekoak)

IRABAZLEA: Aner Perez Manterola (Zarauzko Orokieta Ikastetxea)

GAIA: Iñauterietako mozorroa ez dakit non galdu dudan.

Habanera



<p>Iñauteri eguna da ta elurra mara-mara, gaurkoan hau gertatzea ikaragarri zaila da, mozorroa hartzera joan kaxoian ez dago hara! Gero lasterka joan naiz bilatzera logelara. Kendu dut oheko manta ta baita ere izara, ez ote nun sukaldeko mahaiaren gainean laga, orain beherantz jarri zait pozez gorantz neukan malda ezin dut inon aurkitu mozorro non sartu zara?</p>	<p>Itxaropen handiakin nuen mozorroa jaso, baina azkenean eman zizkidan mila arazo, jaso nuenean zeuzkan oso politak bi lazo, gogoratu beharra dut non utzi ote nuen atzo? Orain egin behar nion nire buruari kaso, ez ote da ba egongo ohe ondoan akaso? Han zegoen, a bai noski! Utzi ta egin nion paso, mozorrorik gabe ere banintzen nahiko pailazo.</p>
---	--

LH 5. eta 6. mailak (10-12 urte bitartekoak)

AIPAMENA: Anton Akizu Garcia (Plaentxiko Herri Eskola)

GAIA: Internet eta telefonorik gabe bizitzen ohitzen ari naiz.

Txanketerena



Telefono barikan zelako patxada faktura aldetik ere merkeagoa da.	Internet gabe ontxe zelako raru batzutan ematen dit pixkat amorrua.
E-mail barikan nago dana da eskutzitza zergatik eman nuen hau eitxeko hitza?	Ia ez naiz akordatzen Interneta zer den ta orain liburuak nabil irakurtzen.



LH 5. eta 6. mailak (10-12 urte bitartekoak)

AIPAMENA: Julen Medina Mujika (Urnietako Egape Ikastola)

GAIA: Lasarteko zalditokira goaz arratsalde pasa.

Pasaiako plazatik



Egapetik atera
eta Lasartera,
gerturatu egin naiz
zaldien aldera,
hipodromotik gertu
bazegon bandera
bandera jaitsi eta
hasi zen karrera.

Alde batean Txuri,
Marroia bestean,
zaldi marroia aurrean,
txuria atzean,
marroiak irabazi
txuria galtzean
dirua irabazi
ta pozik etxean.



Aner Perez irabazlea kantuan eta Anton, Aloña, Julen eta Uxuri aipamen bereziak

LH 5. eta 6. mailak (10-12 urte bitartekoak)

AIPAMENA: Aloña Salegi Alkorta (Debako Luzaro ikastetxea)

GAIA: Ispilu handiagoa jarri nahi dut nire gelan.

Balentin Berriotxoarena



Ispilu txiki eta zatarra bota egingo dugu guk oraintxe bertan bertsoen bidez egia esango dizut, guapa zaudela esan ezkerro zer txula diote batzuk baina ederra naiz, ta badakit handiagoa behar dut (bis).	Goizean jaiki ta begiratu ni nolako guapa naizen ametsetako nire ispilua dendan bai, existitzen zen nik zeregina badaukat jada nire gelan zuzen jartzen ahizpan antzera egun guztia ispiluan begiratzen (bis).
---	---



LH 5. eta 6. mailak (10-12 urte bitartekoak)

AIPAMENA: Uxuri Urrate Ibartzabal (Urretxu-Zumarraga Ikastola)

GAIA: Hegazkineko pilotu izatea gustatuko litzaidake.

Pello Joxepe



<p>Txikitatikan gustatu izan zait neri hegazkinen kontua eta etxeko ganbaran zegon mapa bat ezkutatua ondo aztertu ta ikusi dut nire herria marraztua eta orduan konturatu naiz hau dela nire patua.</p>	<p>Behingoz iritsi naiz altxorrera eta naiz aztoratua hegazkin urdin eta berdea oraintxe dut aurkitua oso polita ta bikaina da, piloa zait gustatua gidatzen ikasten dudanean izango naiz pilotua.</p>
--	--



DBH Lehen Zikloa (12-14 urte bitartekoak)

IRABAZLEA: Iker Letamendia Barandiaran (Azpeitiko Iraurgi Ikastetxea)

GAIA: Urtero bezala, Izarraitz mendira itzuli naiz ku-ku kantatzera.

Frantzes euskaldun bat etorri zait



Izarraitzeko haran estuan alde batetik bestera ku-ku hots hori entzun gabe ni ez naiz jaitsiko hor behera, tea bere bila nik pentsatu dut joatea Xoxote aldera kukuan hotsa entzun orduko aberastuko al gera?	Konturatu naiz hemen zaudela Kakute igo orduko Erlotik behera jaisterakoan nire pausoen lekuko, zure kukuak entzutearren diru faltari nik uko etorri berriz hurrengo urtean ez zaitut eta ahaztuko.
--	--



DBH Lehen Zikloa (12-14 urte bitartekoak)

AIPAMENA: Maddi Landa Etxabe (Zarauzko Salbatore Mitxelena Ikastola)

GAIA: Inoizko ederren iruditu zait aurten itsasoa.

Azken arnasa eman nahi nuke



<p>Goizean jaiki, leihoa ireki, a, ze nolako itsasoa: olatuek pareta koplatuz bustiz malekoi osoa, batzuk olatuekin jolasten nolako dibertsioa, baietz norbait gaur etxera joan bustita hanka ta besoa baina, beraiek ikusi dute ikusi beharrekoa.</p>	<p>Gauza harrigarria ikusita datorkigu gerokoa: taberna dena urez beteta, suntsituta paseoa, malekoia ere lau zulokin duna da eramandakoa Zarautz hankaz gora gelditu da, nolako txikizioa, urak nolako indarra duen da gaur ikusitakoa.</p>
--	--



DBH Lehen Zikloa (12-14 urte bitartekoak)

AIPAMENA: Aritz Sagarna Larrañaga (Oiartzungo Hautzaro Ikastola)

GAIA: Pantailaren aurrean eseri eta banoa, munduan zehar.

Pello Joxepe



<p>Gaur telebista ikusteko nik banuen nahiko astia piztu ondoren niri ez zait jarri oso zapore ezia, basmortuan hondarra eta zeruan zen eguzkia janariaren faltan Afrikan gaur egun jende guztia.</p>	<p>Beti prest nago falta dutenei zerbaitekin laguntzeko janari faltan dauden denekin badago zer egiteko, lenteja eta arroz piska bat nahiko dute bizitzeko, behar dutenei lagundu ondoren ni sentitzen naiz hobeto.</p>
---	---



DBH Lehen Zikloa (12-14 urte bitartekoak)

AIPAMENA: Jone Narbaiza Martinez de Albeniz (Legazpiko Olazabal institutua)

GAIA: Txikitan, ume negartia omen nintzen.

ETAren su etenetik



<p>Duela hamabi urte, nintzen ume txikitxo. Egunez alai nengoen hori nuen gustokoa, gaua heldu ta batera heltzen zen amets gaiztoa. Xaguxar, munstro, tigre ta hain maltzurra zen otsoa, gauetz negarrekin ama jartzen zen bera gaixoa lasai, Jone, esan eta goxo lehortzen malkoa. Orain hamalau urtekin naiz askoz lasaiagoa (bis).</p>	<p>Banuen nik gustokoa pailazoen abestia, hori neretzat askotan nerbio lasaigarria. Entzun ta sentitzen nintzen benetan sudur gorria, amatxok esaten zidan nintzela maitagarria, beldurra etorri eta ordun momentu larria, malkoak irrist egiten, estaltzen zuten irria. Esaten dutenez nintzen ni umetxo negartia (bis).</p>
---	---

DBH Lehen Zikloa (12-14 urte bitartekoak)

AIPAMENA: Maddi Aiestaran Iparragirre (Beasaingo Loinazpe Ikastetxea)

GAIA: Aizkorri-Txindoki-Usurbe, horra goierritarron...!

Zeru altuan dagoen jaunak



<p>Kostaldetikan egin ezker barnealdera bidaia, bi begiekin ikus liteke oso inguru alaia. Lore ugariz betetzen zaigu udaberrian zelaia, denon ametsik ederrenetan agertzen zaigun paisaia!</p>	<p>Hiru tontor horietan inoiz ukitu ezker gaina, barne barnean nagusi zaigu oso sentipen bikaina. Batzuk diote hiru hauen pare dela itsasoa, baina mundu osoan ezertxo ez da gure mendi hauek haina!</p>
--	--





DBH Lehen Zikloko saridunak, Iker Letamendia irabazlea buru dela

DBH Bigarren Zikloa eta Batxilergoa (12-14 urte bitartekoak)

IRABAZLEA: Maialen Akizu Bidegain (Urretxuko Joxemari Iparragirre Institutua)

GAIA: Etxerik gabe noraezean bizi den ijitoa naiz.

Partida tristea Ternuarat (Afari ikaragarri)



<p>Nahiz eta guztiok garen tik-tak soinuen testigu, guri “etorkizun” hitzak aspaldi alde egin digu. Ze garapen, kontsumismo, ze krisi eta ze diru? Hamar gara familian ez bat, ez bi ta ez hiru (bis) Furgoneta kaxaz bete ez logela, ez altzairu. Su bat erdigune eta parrillan lau-bat bisigu. Gitarraren askatasun ilargiaren gatibu. Edozein izkina gure etxe bihurtzen dakigu (bis).</p>	<p>Gaur aitak hala esan dit: “hitz egin beharra daukagu, laister ezkonduko zara merezi bezain ondradu”. Txanpaina atera eta irrifartsu nahiz afaldu, salduta den gorputz baten bihotzak zentzurik ba al du? (bis) Ez nuke nahi ikasteko dudan gogoa itzaldu, biziak mundura sortu ta nire bizia galdu. Malko artean amonak besarkatuz dit azaldu: “ahoa itxi behar duzu eta bi hankak zabaldu” (bis).</p>
---	---

Bikote polita egiten
dugula dute berretsi,
eta zapiaren proba
egingo didate etzi.
“Heldu dira hamazazpi
urteko Joan eta Jesi”.
Orri idatzien aurkako
borrokak ez du merezi. (Bis)
Baina ez dut “payo” izan nahi
nahiz eta askok ez sinetsi.
Poz, alaitasun, musika
artean naizenez hezi,
horrela segiko dugu
hain bitxi ta hain berezi:
gure munduan bilduta
munduagandik ihesi (bis).



Maialen Akizu irabazlea

DBH Bigarren Zikloa eta Batxilergoa (12-14 urte bitartekoak)

AIPAMENA: Iraitz Mateo Gogorza (Oiartzungo Oiartzo Ikastola)

GAIA: Bakoitzak bere trena hartu behar du. Nereari itxarongo diot.

Partida tristea Ternuarat (Afari ikaragarri)




<p>Bagoi txarrean igota jaitsi izan dut aldapa, bizitzeko trena ez da amestu bezain aparta, geltokiz sarri nahastu naiz ta ze arazo galanta lau aldiz nahastu arrren hirutan esan dut “barka”(bis). Bidea sartu behar da eta gainera banaka berriro ere gustura sartuko nukela hanka akatsetatik ikasten baitut nik neuk piskanaka bizitza orok ez baitu inoiz ez galtzeko mapa (bis)</p>	<p>Jadanik lagun guztiak daude geltoki berean badakite zer nahi duten ta biharko egunean zer ikasi, zer pentsatu eta zer egin unean zertarako ta zergatik dituzten oinak lurtean (bis). Guztiek dute helmuga beren begien aurrean nik ez dakit bizitzari nola heldu gehienez denok trena hartu dute bakoitzak bere bidean eta ni bakarrik nago geltoki ilunenean (bis).</p>
---	---

Piskanaka hartuz doa
geltokia kolorea
gazte naiz eta denborak
egin dezala berea
tren ugari dabilta bai
baina zein ote nerea?
norberak berea hartu
da bizitzaren legea (bis).

Itxaropena badaukat
bihotz barnean gorde
itxaron ta ureztatuz
handitzen baita lorea
Nik trenari itxaroten
jarraituko dut ordea.

Bide ona aurkituta
guztia baita hobea (bis)



DBH Bigarren Zikloa eta Batxilergoa (12-14 urte bitartekoak)

AIPAMENA: Iraitz Sarasola Lopetegi (Ordiziako Jakintza Ikastola)

GAIA: Nire burua saritzea erabaki dut, bai horixe!

Kontxako uretan



<p>Azken boladan gogor egiten det lana ikastola batean ikasle andana eta gero zaintzen dut gaixo dedan ama horregatik hartu det estresatun fama sari bat behar dut nik ahazteko hau dana.</p>	<p>Bidai bat neretzako saririk onena aste batez denbora neretzako dena toki batera joan lasaitzen nauena eta han utziko det nik dedan problema horrela hustuko det erabat barrena.</p>
<p>Nahiz eta ni nengoen lehen estresatuta eta unetxo batez burua galdata oraintxe oporretan nago lasaituta eta ez det jarriko kopeta belztuta nik buelta egingo det indarberrituta.</p>	

DBH Bigarren Zikloa eta Batxilergoa (12-14 urte bitartekoak)

AIPAMENA: Naroa Agirre Arozamena (Urnietako Egape BHI)

GAIA: Nire burua saritzea erabaki dut, bai horixe!

ETAren su etenetik



Lan eta lan ibili naiz paperetan begirada hala ere sari ona soilik irabazia da ez nauzu txalotu, ezta hitz politen zaparrada eta horrek tristetzen nau ez naiz maniki bat jada ta hori uste baduzu zoro bat gehiago zara nork egingo ote barre azkena nire algara sari bat merezi dut ta banoa oporretara (bis).	Bihotzik ba ote duzun eta galdera gehiago etortzen zaizkit bururra zure jarreraz harago lan pila egiten dizut zuretzako errazago baina muga pasa duzu ez zara joango aurrerago mesede baten ordezk eskerrikasko bat dago baina gutxi hori ere egiten zaizu arraro badakit maite nauzula baina nazkaturik nago (bis).
---	---

Gai hau konpondu nahi nuke
jarriz zurekin hizketan
burugogorra zarenez
ezin konpondu penetan
beraz maleta bukatu
ikusiko gara bueltan
lasaitzea kostatzen zait
beti horrelakoetan
pazientzia ta patxada
sartuko ditut maletan
haserre honekin dauzkat
zimur gehiegi kopetan
aurpegia oso serio
eta sua begietan (bis).



DBH Bigarren Zikloa eta Batxilergoa (12-14 urte bitartekoak)

AIPAMENA: Aratz Igartzabal Bidegain (Beasaingo Txindoki Institutua)

GAIA: Nire burua saritzea erabaki dut, bai horixe!


Aita izena



<p>Txikitatikan inglesarekin a ze nolako trantzea, egia esan behar baldin bada denbora asko kostatzea...</p> <p><i>Present Continuous</i> ta <i>present simple</i> esaldi baten sartzea eta behingoan iritsia naiz neu zoriotsu jartzea, nire bizitzan lehenengo aldiz inglesa aprobatazea (bis)</p>	<p>Esan ziguten txiki txikitan “inglesarekin hobeto” bertute asko dituela ta derrigorrez ikasteko.</p> <p>Iritzi hori maite ez dedanez adibide bat jartzeko aitak ez daki inglesa eta hura bizi da konpleto inglesa ez da beharrezkoa Gabirian bizitzeko (bis).</p>
<p>Irakasleak aprobau al dik? Nahiz den lagunen galdera kaskagorrea beti izan naiz gure aitaren antzera. Behin aprobatu egin dugu ta joan beharko aurrera. Nire buruai opari onena: inglesa utzi aldera ta Urbiara joan behar det euskera hutsez bizitzera (bis).</p>	



Maila nagusiko saridunak: Maialen Akizu kantuan eta Iraitz Mateo, Aratz Igartzabal, Iraitz Sarasola eta Naroa Agirre



oinak buruan

Eskolartekoa